

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

4410

AGINDUA, 2016ko urriaren 11koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Jar-duera zientifikoa sustatzeko, Ikerkuntzako Euskadi Sariaren 2016ko ediziorako deialdia egiteko dena.

221/2015 Dekretua, abenduaren 1ekoa, Ikerkuntzarako Euskadi Sariak arautzen dituen, jar-duera zientifikoa sustatzeko asmoz.

Dekretu horretako 1.3 artikuluan zehazten denez, Ikerkuntzarako Euskadi Sarirako deialdia urtero egingo da, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren agindu bidez. Agindu horrek honako hauek jasoko ditu: deialdiaren xedea, sari horietarako ezarritako zenbatekoaren eguneratzea eta hautagaiak aurkezteko epea –inolaz ere ez hilabete bat baino txikiagoa.

Horrenbestez, oinarri hartzen dut Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren bidez ordainduko diren gastu-espeditentak aurrez izapidetzeko modua arautzeko Ogasun eta Herri Administrazioiko sailburuordearen 2007ko apirilaren 26ko Aginduan xedatutakoa.

Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da, zientzia eta teknologia modalitatean, Ikerkuntzako Euskadi Sariaren 2016ko ediziorako deialdia egitea –abenduaren 1eko 221/2015 Dekretuaz arautua da sari hori.

2. artikulua.– Hornidura.

Emango den saria eta zenbateko gordina 40.000 eurokoa izango da. Sarituak estatuatxo bat eta bereizgarri bat jasoko dute, gainera, sari-banaketako ekintza publikoan.

3. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Pertsona edo erakunde interesdunek bitarteko elektronikoak erabili ahalko dituzte prozedura honen izapideak eskatu, kontsultatu eta burutzeko.

Izapidetze elektronikoa araututa dago, batetik, Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuan, eta, bestetik, Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpenean, hain zuzen ere, E-Administrazioarako Plataforma Teknologikoa –Platea– onartzekoan.

Bai bide elektronikorako, bai presentzialerako, eskabideari eta deialdiarekin zerikusia duten gainerako izapideei buruzko jarraibideak Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan egongo dira eskuragarri, honako helbide honetan:

https://euskadi.eus/saria_lehiaketa/euskadisaria2016/y22-izapide/eu/

Eskabidea egiteko eta dokumentazioa aurkezteko bide horietako bat –presentziala edo elektronikoa– erabiltzeak ez du esan nahi bidez aldatu ezin denik prozeduraren ondorengo izapideetan, alegia, edonoiz aldatu daiteke bidea, halaxe xedatzen da-eta Administrazio Elektronikoa buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuan.

4. artikulua.– Datuak babestea.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorritik, deialdi honen tramitazioan jasotako datu pertsonalak Zientzia Politikarako Zuzendaritzaren 3. zenbakidun fitxategian, «Bekaduentzako diru-laguntzak» izenekoan, jasoko dira, eta deialdian parte hartzen duten pertsonen berriaz ematen dute datu horiek tratatzeko eta argitaratzeko baimena. Fitxategi hori arau honen xedapen-esparruan sartzeko da: 2010eko urriaren 4ko agindua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren datu pertsonalen fitxategi jakin batzuk arautzen dituen (azaroaren 5eko EHAA, 213. zenbakia).

Fitxategi honen organo arduraduna Zientzia Politikarako Zuzendaritza da. Datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta horien kontra egiteko eskubideak Zientzia Politikarako Zuzendari-tzan gauzatu ahal izango dira. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Zientzia Politikarako Zuzendaritzara jo beharra dago (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz).

XEDAPEN GEHIGARRIA

Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren bidez ordainduko diren gastu-espeditentzarako aurrez izapidetzeari buruzko Ogasun eta Herri Administrazioeko sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren 5.3 artikuluan zehazten diren ondorioetarako, deialdi honetako sariak ebazteko baldintza izango da 2017. urterako Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan kreditu egokia eta nahikoa egotea.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETIK BIGARRENA.

Agindu honek xedatzen ez dituen arloetan abenduaren 1eko 221/2015 Dekretuak ezartzen duena beteko da.

2016ko urriaren 19a, asteazkena

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Agindu honek, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko urriaren 11.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

2016ko urriaren 19a, asteazkena

ESKAERAREN DATU-ORRIA	ERREFERENTZIA	
	BARNE-KODEA	
IKERKUNTZAKO EUSKADI SARIA		

A.- ESKAERAREN DATUAK

Modalitatea	<input type="checkbox"/> Hautagaiak berak proposatua	<input type="checkbox"/> Hirugarren batek proposatua
--------------------	--	--

HAUTAGAIAREN DATUAK

Abizenak eta izena					
NAN/AIZ		Sexua	<input type="checkbox"/> Gizonezkoa	<input type="checkbox"/> Emakumezkoa	
Helbidea					
Udalerrria		PK		Herrialdea	
Helbide elektro		1. telefono-zenbakia		2. telefono-zenbakia	

HAUTAGAIA PROPOSATZEN DUEN PERTSONAREN DATUAK

Abizenak eta izena					
NAN/AIZ		Sexua	<input type="checkbox"/> Gizonezkoa	<input type="checkbox"/> Emakumezkoa	
Helbidea					
Udalerrria		PK		Herrialdea	
Helbide elektronikoa		1. telefono-zenbakia		2. telefono-zenbakia	
Kargua					

Erakunde baten ordezkartzen jarduten du **ORDEZKATZEN DUEN ERAKUNDEAREN DATUAK**

Erakundearen izena					
IFK					
Zuzendaritza		Udalerrria		PK	
Telefonoa					
Helbide elektronikoa					

, sinadura:

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoarekin bat etorriz, deialdiko parte-hartzaileek baimena ematen dute deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak tratatu eta argitaratzeko. Datuok, bestalde, «Ikerketa» izeneko fitxategi batean sartuko dira, diru-laguntzen deialdi hau kudeatzeko eta deialdira biltzen direnei deialdiaren garapenaren berri emateko (fitxategi hori 2010eko urriaren 4ko Aginduan araututa dago –2010eko azaroaren 5eko EHAA–). Fitxategi honen organo arduraduna Zientzia Politikarako Zuzendaritza da. Datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta horien kontra egiteko eskubideak Zientzia Politikarako Zuzendaritzan gauzatu ahal izango dira. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Zientzia Politikarako Zuzendaritzara jo beharra dago (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz).

ESKABIDEARI HONAKO AGIRI HAUEK ERANTSI ZAIZKIO

Agiria	Erantsia

ADIBIDEA

Laguntza hau jasotzeko hautagaiak honako hau adierazten du:

1.– ESKATU DUELA / EZ DUELA ESKATU (erantzun dagokiona) helburu bererako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo bestelako baliabiderik beste administrazio edo erakunde publiko edo pribaturen batetik.

BAIETZ erantzunez gero, eskabidearen edo emakidaren kopia erantsi behar du.

2.– Erakundea EZ DAGOELA / BADAGOELA sartuta (erantzun dagokiona) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den itzultze- edo zehatze-prozedura batean, eta, hala bada, diru-laguntzak itzultzeko obligazioak egunean dituela.

BAIETZ erantzunez gero, prozedurari hasiera emateko agiriaren kopia erantsi behar da.

3.– Erakundeak EZ DUELA JASO / JASO DUELA (erantzun dagokiona) diru-laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiborik edo penalik, edo horretarako legezko debekurik, sexu-bereizkeriagatiko debekuak barne, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean zehaztutakoarekin bat etorritz.

BAIETZ erantzunez gero, zehapenaren edo debekuaren kopia erantsi behar da.

4.– Erakunde eskatzailea EZ DAGOELA / BADAGOELA (erantzun dagokiona) sartuta diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 13. artikuluan ezarritako gainerako debekuetako batean.

BAIEZKO erantzuna emanez gero, zehapenaren edo debekuaren kopia erantsi behar da.

5.– Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzekin edo eskakizunekin lotutako edozein egoera aldatzen bada, edo erakundeak xede bererako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo beste baliabide batzuk eskuratzen baditut edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutatik, konpromisoa hartzen dudala horren berri emateko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Zientzia Politikarako Zuzendaritzari.

_____n/en, _____ko/eko _____ren _____an/eon.

Hautagaia
(Izena eta sinadura)

UNIBERTSITATE ETA IKERKETAKO SAILBURUORDEA